

Euskadin etxebizitza eskuratzeari buruzko txostena genero-ikuspegitik

2023



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY





ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



Emakumeak eta
etxebizitza
2023

AU RKI BID EA

01.

ETXEBIZITZA ESKURATZEARI ERAGITEN DIOTEN
JOERA DEMOGRAFIKOAK

5

02.

ENPLEGUAREN ERAGINA ETXEBIZITZA ESKURATZEAN

9

03.

ETXEBIZITZA BABESTUEN BEHARRA ETA ESKARIA

13

04.

ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOA
ETA ETXEBIZITZA ORDAINTEKO PRESTAZIO-SISTEMA

19

4.1. Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa EAeko emakumeen artean

20

4.2. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria EAeko emakumeen artean

21

4.3. Gaztelagun programaren estaldura eta EAeko emakume gazteak

22

4.4. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei
harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa

23

05.

ONDORIOAK

25



Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera. Euskadi. 2000-2023	6
2. grafikoa. Euskadiko emakumeak, adin-tartearen arabera. 2023 (biztanleria osoaren %).	6
3. grafikoa. Bakarrik bizi diren pertsonak, adinaren eta sexuaren arabera. Guztizkoa, pertsonak eta bakarrik bizi ziren guztien %. 2023.....	7
4. grafikoa. Jaiotza-tasaren bilakaera, 1.000 biztanleko. Euskadi. 1975-2022. Espainiako eta Europako datuak. 2022	7
5. grafikoa. Langabezia-tasak Euskadin izandako bilakaera, sexuaren arabera. 2010-2023	10
6. grafikoa. Gizonen eta emakumeen batez besteko irabaziak, sektoreka, Euskadin. 2008-2021	11
7. grafikoa. Biztanleria okupatua, lanaldi-motaren eta sexuaren arabera. 2023. Pertsona-kopurua (mila pertsona) eta pertsona okupatu guztien %, lanaldi-motaren arabera.....	12
8. grafikoa. Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua. 2017-2023.....	14
9. grafikoa. 18-44 urte arteko pertsonen eskaria lehenengo etxebizitza eskuratzeko, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2023. (lehenengo etxebizitza eskatzen duten guztien %)	14
10. grafikoa. Etxebizitza babestuen eskaeraren bilakaera, sexuaren arabera. 2020 IVT-2021 IVT-2023 IVT*	15
11. grafikoa. Eskaeren titularrak diren emakumeen pisu erlatiboa vs gizonen pisu erlatiboa, eskari-erregimenaren arabera, urte bakoitzeko eskaera guztiekiko (2020, 2021 eta 2023*).....	15
12. grafikoa. Etxebizitza babestuaren eskaerak Etxebiden, sexuaren arabera, 2023ko laugarren hiruhilekoan	16
13. grafikoa. Etxebizitza babestua erosteko onarpena jaso zuten emakumeen pisu erlatiboa, jabetza-erregimenaren arabera. 2020-2023	17
14. grafikoa. Etxebizitza babestuen onarpenak 2020-2023 aldian, eskuratzeko erregimenaren eta esleipendunen sexuaren arabera	18
15. grafikoa. EESren emakume onuradunak, 2023ko abendua. EES ezarri zenetik aurrera bildutako datuak eta kopuru osoaren gaineko pisu erlatiboa.....	20
16. grafikoa. EPOren onuradunak Euskadin. 2022-2023.....	21
17. grafikoa. EPO jasotzen duten emakumeen eta gizonen kopuruak 2022ko abendutik 2023ko abendura bitarte izandako bilakaera	21
18. grafikoa. Gaztelagun programak emandako laguntzen bilakaera 2020-2021-2023	22
19. grafikoa. Gaztelaguneko onuradunen banaketa, sexuaren arabera. 2022-2023	22

Taulen aurkibidea

1. taula. Emakume onuradunak lurralde historikoaren eta erantzun-moduaren arabera, 2023an. EES ezarri zenetik aurrera bildutako datuak. Pertsona guztiekiko ehunekoa	20
--	----



01.


**ETXEBIZITZA ESKURATZEARI
ERAGITEN DIOTEN JOERA
DEMOGRAFIKOAK**



Euskadin, 1.131.456 emakume zeuden 2023an. Azken urteotan, kopuru hori ez da ia handitu. Hala eta guztiz ere, XXI. mendearen hasierako kopuruaren aldean, ia 60.000 emakume gehiago bizi dira Euskadin, immigrazioaren ekarpenari eta bizitza-itxaropen luzeagoari esker.

Emakumeak EAEko biztanleriaren erdia baino zertxobait gehiago ziren 2023an; zehazki, biztanleria osoaren % 51,5. Emakumeen pisu erlatiboa gutxika handitzen da biztanleen adinean aurrera egin ahala: 14 urtetik beherako biztanleen % 48,6 dira; gizonen pisu erlatiboa gaintitzen dute 50 urtetik aurrera; eta % 61 dira 75 urtetik gorakoek artean, bizitza-itxaropen luzeagoa dute eta.


1. grafikoa. Biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera. Euskadi. 2000-2023



Iturria: Eustat

Euskadiko biztanleriaren laurdenak 65 urte baino gehiago ditu; beraz, zahartze demografikoko testuinguru batean gaude, beraz. Egoera horretan, gizarte- eta etxebizitza-politiken kudeaketak erronka konplexuak dakartza, eta nabarmentzekoa da bakarrik bizi diren gero eta emakume gehiagori erantzun bat eman behar zaiela eta etxebizitzak ez daudela haien beharrak asetzeko egokitu.


2. grafikoa. Euskadiko emakumeak, adin-tartearen arabera. 2023 (biztanleria osoaren %)



Iturria: Eustat

2023an, 161.000 emakume baino gehiago bakarrik bizi ziren Euskadin, aurreko urtean baino 8.000 gehiago, eta bakarrik bizi diren pertsona guztien % 56,8. Lehen esan bezala, adinean aurrera egin ahala, emakumeen ehunekoak gora egiten du. Izan ere, bakarrik bizi diren 60 urtetik gorako guztien artean, 10etik ia zazpi emakumeak dira.

3. grafikoa. Bakarrik bizi diren pertsonak, adinaren eta sexuaren arabera. Guztizkoa, pertsonak eta bakarrik bizi ziren guztien %. 2023.




Iturria: Eustat

Biztanleria zahartzeko prozesu horrekin bat etorri, jaiotza-tasa hiru hamarren gutxitu zen 2022an (eskura dagoen azken datua), 2021eko tasaren aldean; hots, Euskadin 6,2 haur jaio ziren 1.000 biztanleko, estatuan baino bederatzi hamarren gutxiago eta EBko batezbestekoa (2020) baino 2,9 haur gutxiago. Joera beherakorra da, argi eta garbi:

2010ean 1.000 biztanleko 9,7 jaiotzakoa zen adierazle hori, eta, duela 40 urte, 1980an, 1.000 biztanleko 13,5 jaiotzakoa, gaur egungoaren bikoitza. Horrenbestez, epe luzera, gazteek lehenengo etxebizitza lortzeko zailtasun gutxiago izango dituztela aurreikusten da.

4. grafikoa. Jaiotza-tasaren bilakaera, 1.000 biztanleko. Euskadi. 1975-2022. Espainiako eta Europako datuak. 2022



Iturria: EUSTAT. EAEko jaiotza-estatistikak, EIN eta EUROSTAT



ETX

**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA**

**OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY**



02. ENPLEGUAREN ERAGINA ETXEBIZITZA ESKURATZEAN



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Enplegua biztanleriaren egoera ekonomikoa taxutzen duten faktore nagusietako bat da, eta erosahalmena eta gastatzeko gaitasuna baldintzatzen ditu. Etxebizitza biztanleek egiten dituzten gastu nagusietako bat da, eta, beraz, emakumeak gizonak baino egoera okerragoan daudenez enpleguari begira, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak ez ezik, zailtasun handiagoak dituzte etxebizitza lortzeko ere.

Desberdintasuna ikusten da emakumeen jarduera-tasa txikiagoan eta enplegua lortzeko zailtasunetan, baina baita emakume langileen batez besteko soldata txikiagoan ere, bereziki.

Emakumeen egoera gizonena baino okerragoa izan zen 2023an ere, lan-merkatura sartzeari dagokionez. Sexu bakoitzaren jarduera-tasak ikusita, egoera hori berresten da, bien arteko aldea ehuneko ia bederatzi puntu baita: gizonena % 60,9 da, eta emakumeena, % 52.


Emakumeek enplegua lortzeari buruzko adierazleak maximo historiko batera heldu ziren 2019an, COVIDaren ondoriozko pandemia baino urtebete lehenago. Emakumeen jarduera-tasa ehuneko 4,2 puntu igo zen 2010etik 2019ra bitarte. Gainera, aldi horretan bertan, bi sexuen arteko aldea nabarmen gutxiagotu zen, ehuneko 15,6 puntutik 9,3 puntura.

Alabaina, pandemia kolpe latza izan zen lan-merkaturako. Pandemiaren osteko garaian, adierazle horiek zertxobait hobetu dira, baina oraindik ez dira iritsi 2019ko mailara.


Bestalde, langabezia-tasa txikiagotzen joan da pandemia eta gero: ehuneko 3,2 puntu 2020tik hona, gizonen artean, eta orain 7,3 puntukoa da; emakumeen artean berriz, ehuneko hiru puntu egin zuen behera, eta langabezia-tasa % 7,7 izan zen 2023an. Hala, Euskadiko langabezia-tasa txikiagoa da bai emakumeen, bai gizonen artean, baina intzidentzia zertxobait handiagoa da emakumeen artean oraindik ere.

5. grafikoa. Langabezia-tasak Euskadin izandako bilakaera, sexuaren arabera. 2010-2023

Jarduera-tasa



Langabezia-tasa




Iturria: BJA Eustat

Enpleguaren arloko genero-arrakala are nabariagoa da ordainsarien adierazleak sexuaren eta jarduera-sektorearen arabera aztertzen direnean. Soldatapeko gizon eta emakumeen arteko irabazi-alderik handiena azken hamarkadan 2012an erregistratu zen: 7.771 €.


Nahiz eta ordutik aurrera gorabeherak egon diren, alde hori gero eta txikiagoa da, eta minimo historikoa lortu zen 2021ean: 5.622 €. Halaber, horrek azaltzen du zergatik igo diren emakumeen irabaziak % 25,9 2012tik aurrera, eta gizonenak, berriz, % 12. Dena den, arrakala txikiagotzen ari bada ere, enplegu ordaindua duten gizonen batez besteko irabazia emakumeena baino % 20 handiagoa da gaur egun. Langileen batez besteko irabazietan sortzen den aldea hiru jarduera-sektore handietan gauzatzen da.

6. grafikoa. Gizonen eta emakumeen batez besteko irabaziak, sektoreka, Euskadin. 2008-2021


Euskadi guztira



Industria



Zerbitzuak



Iturria: EIN



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA


OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Lanaldi partziala duten soldatapeko emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa da, eta eragin nabarmena du soldata-arrakalan.

Emakumeen ehuneko handi batek lanaldi partzialeko enplegua du, eta lan-merkatuan duten egoera okerragoa eta batez besteko irabazi txikiagoa azaltzeko faktore garrantzitsu bat da hori. Lanaldi partziala duten EAEko 10 pertsonatik zortzi emakumeak dira (% 79,2). Hala izaten da egoera hori beren gain hartu behar dutelako ezinbestean, edo familia-bizitzarekin uztartzeko beharraren ondorioz.

Emakundek aldian behin argitaratzen dituen txostenetan ikus daitekeen moduan, EAEko emakumeek etxeko lanetara bideratzen dute beren denboraren zati handi bat, gizonek baino neurri handiagoan, eta horrek modu negatiboan eragiten die haien ibilbide profesionalari eta emantzipazio-aukerei, eta, azken batean, baita etxebizitza eskuratzeko aukerari ere.

7. grafikoa. Biztanleria okupatua, lanaldi-motaren eta sexuaren arabera. 2023. Pertsona-kopurua (mila pertsona) eta pertsona okupatu guztien %, lanaldi-motaren arabera.



Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta




3.

ETXEBIZITZA BABESTUEN BEHARRA ETA ESKARIA



Etxebizitzaren beharren eta eskariaren 2023ko inkesta duela gutxi argitaratu da. Horren arabera, 2023ko udazkenean 29.646 emakumek adierazi zuten lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zutela. 2021eko datuen aldean, oso gutxi txikiagotu da. Gizonen kasuan, aldiz, nabarmen handitu da.


8. grafikoa. Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua. 2017-2023



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra adierazten duten emakumeei dagokienez, behar horri heltzeko behar adinako diru-sarrerak ez dituztenen ehuneko handia berretsi da, aurreko edizioetan bezalaxe. Zehazki, % 82,1 izan ziren 2023an, eta % 73,9 2021ean. Orobat, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten gehieneko egoera ekonomikoa eskasa da bi sexuetan, baina emakumeena gizonena baino pixka bat okerragoa da.

9. grafikoa. 18-44 urte arteko pertsonen eskaria lehenengo etxebizitza eskuratzeko, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2023. (lehenengo etxebizitza eskatzen duten guztien %)




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

Emakumeen eskaerak gero eta gehiago dira Etxebiden. Horrenbestez, emakumeak gehiago dira Euskadiko etxebizitza babestuaren eskarian.

Etxebizitza babestua erosteko eskaera-kopurua % 29 handitu da titularrak emakumeak diren kasuetan, eta % 26,8, titularrak gizonak diren kasuetan. Alokairu-eskariari dagokionez, titularrak emakumeak diren eskaerak % 18,2 gehiago dira, eta titularrak gizonak diren eskaerak, % 13,3 gehiago.

10. grafikoa. Etxebizitza babestuen eskaeraren bilakaera, sexuaren arabera. 2020 IVT-2021 IVT-2023 IVT*




* titular gisa emakume bat bakarrik edo gizon bat bakarrik duten eskaerak
Iturria: Etxebide

Emakumeek alokairuko etxebizitza babestua eskatzeko joera handiagoa dute gizonek baino, eta horrek agerian uzten du emakumeen egoera ekonomiko eta soziala zaurgarriagoa dela.

Titular bakarria emakume bat den etxebizitza babestuaren eskaerak gizonen eskaerak baino pisu erlatibo handiagoa dute bi eskari-erregimenetan. Nolanahi ere, alderik handiena alokairuen eskarian ikusten da. Etxebizitza babestuaren eskaeretan, emakume titularrek eskari osoaren % 45,4 osatzen dute, eta gizonak, % 33,4. Erosketan, berriz, emakumeak titularrak dira eskaera guztien % 43,2an, eta gizonak, berriz, % 33,4an.

11. grafikoa. Eskaeren titularrak diren emakumeen pisu erlatiboa vs gizonen pisu erlatiboa, eskari-erregimenaren arabera, urte bakoitzeko eskaera guztiekiko (2020, 2021 eta 2023*)




* titular gisa emakume bat bakarrik edo gizon bat bakarrik duten eskaerak. Gainerako eskaeretan bi sexuak dira titularrak.
Iturria: Etxebide

**ETX**ETXEBITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Ez dago alde handirik EAEko lurralde batetik bestera: azpimarratu den errealitatea ia homogeneoa da Euskadiko lurralde historiko guztietan. Etxebideko eskaeretan EAEko emakumeen pisua gizonena baino handiagoa dela berretsi da, batik bat alokairuaren erregimenean.

12. grafikoa. Etxebizitza babestuen eskaerak Etxebiden, sexuaren arabera, 2023ko laugarren hiruhilekoan




Iturria: Etxebide

Euskadiko etxebizitza babestuak eskuratzeko eskaeren titularrak diren emakumeek neurri handiagoan eskuratzen dute etxebizitza babestua, gizonen aldean

Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzaren estrategia etxebizitza eskuragarriak lortzeko aukera hobetzera bideratu da, alokairu babestuaren bidez batez ere. Estrategia horri eutsi egin zaio 2021-2023ko Etxebizitza Plan Zuzentzailean. Ekimen horren lehentasuna diru-sarrerara txikiak dituzten pertsonen laguntzea da, emakumeei mesede egiteko ikuspegiarekin bereziki.

2023an, alokairu babestuko kontratuen onarpenen % 61,3an emakumeak ageri ziren titular gisa, eta proportzio hori asko hazi da egin 2021az geroztik. Erosteko etxebizitza babestuen kasuan, proportzio hori onarpenen % 50,3 da. Emaizta hori lehendik ere ikusitakoarekin bat dator; zehazki, emakumeek pisu handiagoa dute etxebizitza babestuaren eskarian, bereziki alokairuaren erregimenean.

13. grafikoa. Etxebizitza babestua erosteko onarpena jaso zuten emakumeen pisu erlatiboa, jabetza-erregimenaren arabera. 2020-2023



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren informazioan oinarrituta kalkulaturako datuak.

2023an, etxebizitza babestuko onarpenak 2.078 emakumeri esleitu zitzaizkion guztira, eta 1.680 gizoni. 2021etik aurrera, % 21,9 onarpen gutxiago esleitu zaizkie etxebizitza babestuaren eskaeretako gizon titularrei, eta etxebizitza babestuaren eskaeretako emakume titularrak % 6 gutxiago dira.

Egiantan, alokairuko etxebizitza babestuen onarpenen ehunekoa mantendu egin da emakumeen artean. Hala, jaitsiera hori gertatu da erosketarako onarpenak % 11,5 egin duelako behera, eta hori bat dator 2021-2023ko Etxebizitza Plan Zuzentzailean alokairuko etxebizitza babestuaren alde egiten den apustuarekin. Gizonen kasuan, esleitutako onarpen-kopurua txikiagoa da bi erregimenean: erosketan, % 28,2; eta alokairuan, % 9,5.


Beraz, esleitutako onarpenak oro har jaitsi egin direla ikusten da, eta zenbait joera eratu dira. Batetik, beheranzko joera ikusten da gizonen 2023an esleitutako onarpenetan, erosketako jaitsiera nabariarekin. Eta bestetik, joera ez hain bistako bat emakumeen artean; hori ulertzen da alokairuko kopuruek bere horretan jarraitzen dutelako eta erosketako etxebizitza babestuaren eskaria txikiagoa delako.



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

14. grafikoa. Etxebizitza babestuen onarpenak 2020-2023 aldian, eskuratzeko erregimenaren eta esleipendunen sexuaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren informazioan oinarrituta kalkulaturako datuak.



04.

**ETXEBIZITZA ESKURATZEKO
ESKUBIDE SUBJEKTIBOA ETA
ETXEBIZITZA ORDAINTEKO
PRESTAZIO-SISTEMA**



4.1. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa EAEko emakumeen artean

Ekainaren 18an aldarrikaturiko 3/2015 Legeak Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa (EES) ezartzen du, hautagarri direnei mesede egiteko hainbat mekanismo implementatuz. Onura horiek lortzeko, interesdunek Etxebiden erregistratuta egon behar dute eta gehieneko diru-sarreraren betekizunak bete behar dituzte.

Eskubide subjektibo hori aitortuz, onuradunei alokairu-erregimeneko etxebizitzak esleitzeko atea zabaltzen da. Bizileku-unitateak eskura ez daudenean, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren (EPE) programara sartzeko aukera ematen da.

EES emakumeei aitortu zaie neurri handienez, egoera ekonomiko okerragoan daudelako etxebizitza merkatu librean eskuratu ahal izateko.

Guztira, EES 8.326 pertsonari aitortu zitzairen 2023ra bitarte, eta haien artean 5.374 emakumeak ziren; hots, % 64,5. EES 1.969 pertsona gehiagori aitortu zitzairen 2021eko kopuruaren aldean; % 31 gehiagori, beraz.

EPE 1.541 emakumek jaso zuten guztira. Hortaz, laguntza horren onuradun diren 10 pertsonatik zazpi emakumeak izan ziren. Bestalde, 1.582 emakumeri babes publikoko etxebizitza esleitu zitzairen, eta horrek esan nahi du 2021ean baino % 58 gehiago izan zirela.


EES onartu dieten gainerako emakumeek lehentasuna izango dute etxebizitza babestua etorkizunean esleitzeko orduan.

1. taula. Emakume onuradunak lurralde historikoaren eta erantzun-moduaren arabera, 2023an. EES ezarri zenetik aurrera bildutako datuak. Pertsona guztiekiko ehunekoa

Lurraldea	Esleitzeko lehentasuna	EPE	Etxebizitza-esleipena	Guztira, orokorra
Araba	396	124	279	799
Bizkaia	1.647	1.124	954	3.725
Gipuzkoa	208	293	349	850
Guztira	2.251	1.541	1.582	5.374
Araba	% 17,6	% 8	% 17,6	% 14,9
Bizkaia	% 73,2	% 72,9	% 60,3	% 69,3
Gipuzkoa	% 9,2	% 19	% 22,1	% 15,8
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

15. grafikoa. EESren emakume onuradunak, 2023ko abendua. EES ezarri zenetik aurrera bildutako datuak eta kopuru osoaren gainerako pisu erlatiboa



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

4.2. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria EAEko emakumeen artean

Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) DSBERen osagarri baten modura artikulatu da, eta etxebizitzaren edo ohiko ostatuaren gastuak ordaintzea du xede.

Pandemiak 2020an eragindako krisia eta gero, EPO jasotzen zuen pertsona-kopurua behera egiten joan da gutxika, Euskadiko hazkunde ekonomikoari esker. Haatik, 2023an, 13.732 emakumek jaso zuten EPO Euskadin, aurreko urtean baino 1.311 gehiagok (+% +10,6). Halaber, 11.754 gizonak jaso zuten, 2022an baino 670 gehiagok (+% 6).


16. grafikoa. EPOren onuradunak Euskadin. 2022-2023



Iturria: Lanbide

Laguntza hori jasotzen duten emakumeen pisu erlatiboa % 53,9 izan zen, eta % 1,1 igo da azken urtean. Datu horiek txosten honetan zehar egiaztatu dena berresten dute. Izan ere, agerian geratzen ari da emakumeek gizonak baino zailtasun gehiago dituztela alokairu libreko etxebizitza bat lortzeko, eta zaurgarriagoak direla etxebizitza eskuratzeko garaian.

17. grafikoa. EPO jasotzen duten emakumeen eta gizonen kopuruak 2022ko abendutik 2023ko abendura bitarte izandako bilakaera



Iturria: Lanbide




4.3. Gaztelagun programaren estaldura eta EAEko emakume gazteak

Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun programa abiarazi zuen 2019an. Gaurdaino, independizatu nahi duten gazteek darabilten tresna nagusietako bat izan da. Prestazioa estaldura handi samarra izan da alokairu librean bizi diren gazteentzat.

2020an, 1.800 onuradun izan ziren. 2023an, berriz, 6.366 pertsona izan arte zabaldu zen, 2021ean baino % 157 gehiago. Onuradun guztien % 57,4 emakumeak dira.


Halaber, % 62,5ek 24 eta 29 urte artean dituzte, eta proportzio hori handiagoa da emakumeen kasuan (% 65). Beraz, ematen du emakumeak lehenago emantzipatzen direla, laguntza publikoak jasotzeko aukera dutenean.

18. grafikoa. Gaztelagun programak emandako laguntzen bilakaera 2020-2021-2023



Lurraldeak aztertuz gero ikusten da programaren onuradun-kopurua nabarmen handitu zela Euskadiko hiru probintzietan. Emakume onuradunen pisu erlatiboa Gipuzkoan dago bereziki, % 60,8 izan ziren eta. Araban eta Bizkaian, aldiz, emakumeen pisu erlatiboa % 55-56 inguru izan zen.

19. grafikoa. Gaztelaguneko onuradunen banaketa, sexuaren arabera. 2022-2023



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

4.4. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak etxebizitzan tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasan dituzten emakume biktimei laguntzeko berariazko tratamendua eta arreta ditu txertatuta etxebizitza-politikan.

Arreta-politika horrek 2023an izandako emaitzak honako adierazleen bidez zehaztu daitezke:

a. Etxebide Etxebizitza babestuaren eskaerak

- Genero-indarkeriaren 1.930 emakume biktima agertzen ziren Etxebideren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan, alta egoeran. Horietatik 360 eskaera berriak izan ziren.

b. Etxebizitza babestuaren esleipenak

- Genero-indarkeriaren biktimak ziren 182 emakumeri eta haien seme-alabei babes publikoko etxebizitza bat edo baliokideren bat esleitu zitzaien 2023an.
- Esleipen, baremazio eta lehentasunezko kupoen prozedura arruntaren bidez, 128 etxebizitza esleitu zitzaizkien genero-indarkeriaren emakume biktimei. Eta, aparteko prozeduraren edo zuzeneko esleipenaren bidez, 54 etxebizitza.



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



05. ONDORIOAK



1. Aurreko edizioetan bezala, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailburuordetzak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren bidez, etxebizitza babestua eskuratzeko orduan eta programa eta prestazio publikoetan parte hartzeko orduan ekitatea eta berdintasuna bermatzen duten politikak garatzeko konpromisoa du, indarrean dagoen 2021-2023ko Etxebizitza Plan Zuzentzaileak jasotzen duen moduan, eta konpromiso horri erantzuten dio txosten honek.
2. Aurreko edizioetan bezala, txostenaren ondorio nagusietako bat etxebizitza-politikak eduki behar duen zeregin garrantzitsuarekin lotuta dago, EAEko emakume dezenteren kontrako egoera sozioekonomikoa arintzeko, neurri batean behintzat, egoera horrek zailtasun handiagoak dakarzkielako etxebizitza bat eskuratzeko ordaindu daitekeen prezio baten truke.
3. Emakumeek enplegua lortzeko aukera 2023an ere hobetu zela ikusten da, langabezia-tasak behera egin duelako bereziki: % 9, 2022an, eta % 7,7, 2023an. Hala eta guztiz ere, emakumeak gizonak baino askoz neurri txikiagoan sartu dira EAEko lan-merkatuan, eta horrek independentzia ekonomikoa eta emantzipatzeko aukera baldintzatzen ditu.
4. Jarduera-tasan ikusten den arrakala oso handia izan zen 2023an; zehazki, emakumeena % 52 izan zen, eta gizonena, % 60,9. Bestalde, EAEko emakumezko langileen batez besteko irabazia gizonazko langileena baino 5.622 euro txikiagoa izan zen.
5. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren beharren eta eskariaren azken inkestan 2023ko datuak jaso dira, eta berriz berretsi du lehenengo etxebizitza behar duten 10 emakumetik zortzik ez dutela horretarako baliabide ekonomikorik. Egoera hori Etxebizitzaren islatzen da, etxebizitza babestuaren eskarian. Emakumeek alokairuko etxebizitza babestua eskatzeko joera handiagoa dute gizonak baino, eta horrek agerian uzten du emakumeen egoera ekonomiko eta soziala zaurgarriagoa dela. Zehazki, titular bakarria emakume bat den etxebizitza babestuaren eskaerak gizonen eskaerak baino pisu erlatibo handiagoa dute oraindik ere bi eskari-erregimenetan. Nolanahi ere, alderik handiena alokairuen eskarian ikusten da.
6. Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzaren estrategia etxebizitza eskuragarriak lortzeko aukera hobetzera bideratu da, alokairu babestuaren bidez batez ere. Estrategia horri eutsi egin zaio 2021-2023ko Etxebizitza Plan Zuzentzailean. Horiek horrela, etxebizitza babestuak sustatzeko politikak estaldura ematen die emakume gehiagori gizoni baino, bereziki alokairu-erregimenean. Hori gertatzen ari da politikak diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonen eta familia-unitateei mesede egiten dielako baremazio-sistemaren bidez, eta emakumeak dira gehienbat. Horrez gain, muturreko egoeretan (genero-indarkeria dagoenean, adibidez), etxebizitza babestua eskuratzeko lehentasun-mekanismoak daude.
7. 2023an, etxebizitza babestuko onarpenak 2.078 emakumeri esleitu zitzaizkion guztira, eta 1.680 gizoni. Alokairu-kontratuen onarpenen % 61,3 emakumeek sinatu zituzten, alokairu babestuko kontratuen titular gisa, eta aurreko urteetan ikusitako proportzioa handitu zen. Errostea etxebizitza babestuen kasuan, proportzio hori onarpenen % 50,3 da.
8. EAEko etxebizitza-politikak egoera desberdin hori arindu nahian jarraitzen du, EESren bidez eta alokairuko etxebizitzaren ordainketa osatzeko prestazioak erabiliz, ekitatea ziurtatzeko nola tratuan hala etxebizitza babestua eskuratzeko orduan.

9. EES 8.326 pertsonari aitortu zitzaien 2023ra bitarte, eta haien artean 5.374 emakumeak ziren; hots, % 64,5. EPE 1.541 emakumek jaso zuten guztira. Hortaz, laguntza horren onuradun izandako 10 pertsonatik zazpi emakumeak izan ziren. Bestalde, 1.582 emakumeri babes publikoko etxebizitza esleitu zitzaien, eta horrek esan nahi du 2021ean baino % 58 gehiago izan zirela.
10. EPO bizileku-bazterkeriatik gertuen dauden emakumeei bideratuta dago, eta 13.732 emakumek jaso zuten 2023an (onuradun guztien % 53 izan ziren), 2022an baino % 10,6 gehiagok. Prestazio hori EPEn sartuko da laster. Gaztelagun ere nabari hazi da, 6.366 gaztek jaso baitzuten 2023an; hau da, 2021ean baino % 157 gehiagok. Onuradunen % 57,4 emakumeak izan ziren.
12. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak baliabide eta tresna espezifikoak ditu tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakume biktimentzat. Genero-indarkeriaren biktimak ziren 182 emakumeri eta haien seme-alabei babes publikoko etxebizitza bat edo baliokideren bat esleitu zitzaien 2023an.
13. Azkenik, azpimarratu behar da Etxebizitzaren aldeko 2036rako Itun Sozialak EAEko etxebizitza-politika egituratzeko berme bat izan behar duela alokairu babestuko parke bat eraikitzeke ideari gauzatzeko, herrialdeko inbertsio baten modura, eta baliabide egonkorrak izan ditzan epe luzera. Apustu estrategiko hori emakumeei neurri handiagoan mesede egiten dien politika bat izan behar da, egoera ekonomiko eta sozial okerragoan daudelako. Bitartean, ESSk eta laguntza zein prestazioen sorta handiak jarraituko dute etxebizitza eskuratu eta ordaintzeko kontrako egoerak arintzeko ahalegina egiten EAEko dozena milaka emakumerena artean.



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



Emakumeak eta
etxebizitza
2023

